



Ikasteko aholku batzuk

- ✓ Egoera fisikoa zaindu: 8 ordu gutxienez lo egin, ariketa fisikoa edota gustukoa duzun aktibitateari eskaini iezaiozu denbora.
- ✓ Lan baldintzak zaindu: argia, mahaia, aulkia, postura, materiala, ...
- ✓ Hasi baino lehen, mahai gainean behar duzun materiala jar ezazu.
- ✓ Ikas ezazu ordu berean, toki berean.
- ✓ Atsedenaldiak 5etik 15 minutura iraungo dute, hasieran motzagoak eta bukaeran luzeagoak.
- ✓ Ikastea aktiboa izateak zera suposatzen du: galderak egitea, liburuak kontsultatzea, azpimarratzea, eskemak, hiztegia erabiltzea,..
- ✓ Ikasketa tekniken bidez ikastea eragingarriagoa izatea bilatzen da, hau da, esforzu gutxiagoarekin etekin handiagoa lortzea.
- ✓ Orokorrean, ikasterakoan hainbat pausu jarraitu behar dira: lehendabizi irakurketa orokorra, bigarren irakurketa ulerkorra, azpimarraketa, eskema, laburpena, errepassoa.
- ✓ Irakurmena erabakikor eta oinarrizko gaitasuna da eskolan aurreratzeko. Bila itzazu zure gustoko liburuak.
- ✓ Ikasteko, konbentzituta egon ezezik, helburuak finkatzea komeni da.
- ✓ Lorpenak askotan akatsen gainean eraikitzen dira. Ikasterakoan, akatsa ulermena bilatzeko beste maila bat dela onartu behar da.
- ✓ Akatsak ez badira onartzen ez da ikasten iraunkortasunez jokatzeko.
- ✓ Arazoei erantzuna ematen ikastea irtenbideetan oinarrituz, eraginkorragoa da eta motibazioa gehitzen du.
- ✓ Guraso eta seme-alaben arteko erlazioa orientazio eta laguntzazkoa denean, ikastearen kalitatea bultzatzen du.